GEP, junto a ITP, ha organizado en septiembre la Conferencia Europea de conformado superplástico (EuroSPF 2010), para dar a conocer los últimos avances en esta tecnología y propiciar la creación de sinergias entre los participantes que les permitan desarrollar nuevos procesos-máquinas-piezas en el ámbito del conformado de superplástico. Esta tecnología permite conformar láminas de chapa para crear formas complejas sin que éstas se rompan. El proceso se lleva a cabo a alta temperatura (unos 1000 ºC para el caso del titanio), obteniéndose así alargamientos de hasta un 1000% para ciertas aleaciones. Los sectores en los que más se utiliza el conformado superplástico son el aeronáutico, el aeroespacial y el de la salud.

ENPRESAGINTZA

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

# ENPRESAGINTZAKO IKASLEAK EFQM FORUM 2010 BIKAINTASUN JARDUNALDIAN



MU-KO ENPRESAGINTZA FAKULTATEKO LAU IKASLEK EFQM FORUM 2010 JARDUNALDIETAN PARTE HARTU DUTE, BILBOKO EUSKALDUNA JAUREGIAN. EFQM (EUROPEAN FOUNDATION FOR QUALITY MANAGEMENT) 1988AN SORTU ZUTEN EUROPAKO HAMALAU KONPAINIA GARRANTZITSUK, EUROPAKO BATASUNAREN BABESAREKIN. GAUR EGUN 500 ERAKUNDEK OSATZEN DUTE

Kudeaketa prozesuetan bikaintasun ziurtagiriak ematen ditu EFQM erakundeak. EAEko enpresa askok parte hartzen du bikaintasun prozesuetan eta horrexegatik aurten Europako erakundeak Bilbon egin du urteroko jardunaldia. Enpresagintza fakultateko lau ikasle, Aitor Lizartza irakaslearekin, jardunaldietan parte hartzera eta ariketa praktiko bat egitera gerturatu dira bertara, Jardunaldian jasotako informazio guztia prozesatu eta euren konklusio edo ondorioak ateratzeko. Maria Longarte eta Irati Blanco Enpresen Administrazio eta Kudeaketan Lizentziatura egiten ari dira, laugarren mailan, Enpresagintzako Irungo fakultatean. Bi ikaslerekin egoteko aukera izan dugu.

**Zein asmorekin gerturatu zarete EFQM forum 2010era?**

**Maria:** Gure espezialitatea ekintzailetasunaren arloan kokatzen da. Hasierako prozesu horretan ideien sorkuntza lantzen ari gara eta EFQM 2010 foruma kreatibitatera eta berrikuntzara bideraturik zegoenez, leku paregabea zela iruditu zitzaigun ideiak hartzeko. Munduko enpresa bikainen ordezkariak eta kreatibitatearen maisuak aurkitu ditugu bertan, beraien aurkezpenak entzun eta aplikatzeko asmoz.

**Irati:** Gure campuseko irakasle batek komentatu zigun foruma zegoela, eta etortzeko aukera eskaini zigun. Egia esan, gure lizentziarekin oso loturiko gaia izan da.

**Zeintzuk dira ariketa honetatik atera dituzuen ondorio nagusiak?**

**Maria:** Kreatibitatea landu daitekeen gaitasun bat dela, hobeto esanda landu beharrekoa. Gaur egun, berritzaile izatea beharrezko da merkatuan mantendu nahi baduzu.

**Irati:** Azken finean, ikusi dugu klasean jorratzen duguna, eguneroko bizitzan erabiltzen dutela kongresu honetan aritu diren guru guztiek, eta modu batean, motibazio bat da ikasten jarraitzeko.

**Orokorrean zer iruditu zaizue Bikaintasunaren foruma?**

**Maria:** Maila goreneko enpresen topaketa bat izan dela esango nuke. bikaintasunarengatik lehiatzen dabiltzanen bilkura. Orokorrean, oso ongi antolaturiko jardunaldiak izan dira, ekintza anitzekoa: hitzaldiak, *networking* kafeak…

**Irati:** Nahiko ondo egon da, eta hitzaldiak ere interesgarriak izan dira.

**Bukatzeko, zein iritzi duzue kudeaketan bikaintasun prozesuen inguruan?**

**Maria:** Lana ongi egiten duten enpresak saritzeak, motibazio eta prestigio puntu bat ematen die, errekonozimendu publiko bat. Euskal Herrian Bikaintasunaren prozesuetan murgildurik dauden enpresa asko daude, badira ziurtagiria jasotakoak ere. Nire ustez, lan handia egiten ari den erakundea da EFQM fundazioa, beraien prozesuetan Erantzukizun Sozial Korporatiboa zein Ingurumen -Kudeaketa bezalako kontzeptuak jorratuz.

# URTARRILEAN, BERRIKUNTZA DIDAKTIKOARI BURUZKO MASTERRA ABIARAZIKO DA

**IKASTAROA**
2011ko urtarrilean hasiko da eta 2011ko abendurarte emango dituzte eskolak. Kostea, berriz, 4.950 eurokoa izango da.



UNIBASQUE ETA ANECA KALITATE AGENTZIEN ONARPENA JASOTA, 2010-2011 IKASTURTEAN MASTER BERRI BAT JARRIKO DA MARTXAN HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAN: "BERRIKUNTZA DIDAKTIKO-METODOLOGIKOKO PROIEKTUEN GARAPENA HEZKUNTZA ERAKUNDEETAN"

Master honetan estrategiak landuko dira, berrikuntza didaktiko-metodologikoari lotutako proiektuak sortzeko eta kudeatzeko, eta interbentzio baliabideak jorratuko dira.

Mariam Bilbatuak zuzenduko du master hau, berau Hezkuntza Zientzietan doktorea, HEZIko zuzendaria Mondragon Unibertsitatean eta HUHEZIko irakaslea

**PROFESIONALENTZAT**
Masterra hezkuntzan diharduten profesionalei zuzenduta dago: hezkuntza zentroak, hezkuntza administrazioa eta hezkuntzan diharduten beste erakundeei, hain zuzen, zeregin ezberdinetatik berriztapen-proiektuak sustatu, diseinatu eta kudeatzen dituztenak. Inskripzio epea 2010eko urrian hasiko da.

Masterrak ikaslea izango du ikaskuntzaren ardatz. Ikasleak zuzendutako proiektuak bere prestakuntza-ibilbidea markatuko du. Metodologiak, bestalde, honako alderdiak biltzen ditu: kasuen azterketa, egoerei buruzko azterketa eta hausnarketa, informazioaren bilaketa nahiz eztabaida eta proiektuetan oinarritutako bestelako metodologiak. Hori guztia modalitate erdi-presentzialarekin (%30 aurrez aurrekoa eta %70 *on line*).

**IKASKETA EGITURA**
Masterraren titulazioa lortzeko, ikasleak 60 ECTS kreditu egin beharko ditu: 20 ECTS arlo komun derrigorrezkoetan; 20 ECTS masterraren bi ibilbideen artean aukeratuta; eta 20 ECTS praktikak eta master amaierako proiektuan. Mariam Bilbatuak zuzenduko du masterra, Hezkuntza Zientzietan doktorea, HEZIko zuzendaria M Un eta HUHEZIko irakaslea.

HUHEZI
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

## ARETXABALETAKO ERAIKIN BERRIA PREST UZTAILERAKO

Dagoeneko hasi dira lanak Bedarreta auzoan, Aretxabaletan, datorren ikasturtean bertara joan dadin Ikus-entzunezko Komunikazioa karrera. Lanok irail hasieran hasi ziren, eta asmoa da 2011ko uztail edo abuzturako amaituta egotea.

Eraikina berritzea 5 milioi euro kostatuko da. Guztira 3.000 metro izango ditu, hiru solairutan banatuta. Bertan karrerak beharrezko dituen azpiegiturarik inportanteenak egingo dira, ikerkuntzarako laborategi eta guzti, berau komunikazio proiektuak lantzeko.

## SOFTWARE LIBREA EUSKARAZ IKASLE ETA LANGILE GUZTIEI

HUHEZIko ikasle eta langile guztiek DVD bat jaso dute, hainbat aplikazio informatikorekin, software librekoak eta euskaraz: Open Office, Firefox, PDF Creator, Audacity...

Software hori bi karpetatan banatu da: bat "MUbuntu" izenekoa, Ubuntu sistema eragilean erabiltzeko. Berorren bidez, erabiltzaileak Ubuntun egin ahal izango du lan edozein ordenagailutan, nahiz eta horrek instalatuta eduki ez sistema hori. Bigarren karpetak ere software librea euskaratua dakar, baina Windows sisteman instalatzeko.

## JOSU GALARZA

# "SISTEMA TXERTATUAK OSO GARRANTZITSUAK DIRA LEHIAKORRAK IZATEKO"

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK IKERKUNTZA TEKNOLOGIKO ZENTROA ESTREINATU DU GARAIA BERRIKUNTZA GUNEAN.MU-KO ELEKTRONIKA ETA INFORMATIKA DEPARTAMENDUEN KOORDINATZAILE JOSU GALARZAREKIN HITZ EGIN DUGU ERAIKINAZ ETA GARATUKO DUTEN SISTEMA TXERTATUAREN GAINEAN

**MUk ikasturtea ikerkuntza teknologiko eta elektronikoen zentroa inauguratuta hasi du. Pauso garrantzitsua da zentroa gurean zabaltzea?**

Erronka garrantzitsua da Garaian zentro bat edukitzea, berrikuntza guneak ematen dituen aukera guztiak aprobetxatzeko. Proiektu estrategikoan zutabe batzuk jarri ditugu, eta bat sistema txertatuena da. Hain zuzen, Garaian askoz errezagoa da halako sistemak garatzea.

**Eraikuntza berriak baliabide asko ditu…**

Bai, 8.500 metro karratu ditu eta azpiegituraz oso ondo jantzita dago; gainera, oso malgua da. Komunikazio sareetan goi mailako teknologia ezarri dugu: telefonia, bideo eta lanerako elementu guztiak integratuta daude, eta eraikina ere prestatuta dago; hori berrikuntza da. Bestalde, ikasle guztiek ordenagailu eramangarriak dituzte; eta ikasle eta ikertzaileen artean komunikazio inalambrikoa bermatuta dago.

**Zeintzuk erabiltzen dute fakultate hau?**

50 ikertzaile hasi dira lanean, eta asmoa da epe laburran 100 izatea. Baina Informatika eta Telekomunikazio ingenieritzako ikasleak eta baita doktoretza egiten dabiltzanak ere badaude. Guztira 300 bat ikasle daude.

**Sistema txertatuak dagoeneko aplikazio asko ditu?**

Sistema txertatua da elektronika inteligente bat, informatika eta telekomunikazio teknologietan oinarrituta dagoena. Eta teknologiok hainbat alorretan erabiltzen dira: etxeko elektratresnetan, etxeetan, osasungintzan, garraiobideetan… Oraindik gehiago indartu behar da, eta izango da oso garrantzitsua gure industrian, lehiakorrak izateko.

> *"Zentro teknologikoa, unibertsitatea eta berrikuntza kontzeptua duten enpresak hain hurbil egotea oso aberasgarria da"*

**Badago horrelako bestelako zentrorik EAEn?**

Ez. Sistema txertatuen alorra lantzen da unibertsitateetan eta enpresetan, baina erreferentzia moduan Garaian badago ETIC zentroa, Microsoft software sistema txertatuak lantzen dituena. Hortaz, zentro teknologikoa, unibertsitatea eta berrikuntza kontzeptua duten beste enpresa bazuk hain hurbil egotea oso aberasgarria eta potentziala da.

**Zer ondorio du gugan teknologia berri honek?**

Asko. Adibidez, etxeetan domotikari dagokionez. Horri esker, %25-50eko aurrezpena lor daiteke. Enpresetan ere hasi dira ezartzen. Energiaren ikuspuntutik, gure elektrizitate sistemak nahiko egonkorrak dira. Baina plantea daitezke generadore edo energia sortzaile zein berriztatzaile berriak eta ohiko sistemak ez daude prest hori guztia jasotzeko. Hortaz, sistema txertatua gakoa da. Horrekin batera, igogailuetan ere sistema txertatu inteligenteak daude; osasungintzan aukerak dira, adibidez, etxetik diabetiko batek dieta eta kirol aktibitateak kontrolatzea…

Badaude hainbat esparru berritzaile, baina zentroak bestelako helburuak ere baditu: ez da bakarrik teknologia digitalak menderatzea, diziplina askotako teknologia horren gaitasuna integratzeko eragile gehiago inplikatu behar dira: adibidez, osasungintzako adituak. Hori da bigarren iraultza, eta horretan guk esku -hartzea izan dezakegu: pertsonei formazioa eman, iraultza hori egin ahal izateko.

**Zeintzuk dira sistema txertatuen abantailak?**

Batez ere sistema malgu bat integratzen dela aplikazioetan. Ez da elementu standard bat, produktuan integratzen da, eta erabiltzaileendako, nahiz eta balio erantsia eman, ia gardena izan



ARGAZKIA: J. ARANZABAL

behar da. Berak antzematen du nor zaren, zure ezaugarriak.

**Arrasaten zabaldu duzuen zentroa Europan lehiatzeko modukoa izango da?**

MUren abantaila da oso malguak garela eta diziplina asko lantzeko erraztasuna daukagula. Eta Garaian hainbat faktore batzen dira gu erreferentzia izateko.

**Gune honi ezaugarri berezia ematen dio zentro berriak?**

Bai. MU-k Garaian eraikin bat edukitzea ezinbestekoa da, eta hori igarri da giro aldetik, sinergia aldetik… Nahiko hurbil egon gara, baina dagoeneko gertutasun fisikoa bermatu dugu.

**Zer proiektu dituzue esku artean?**

Oronarekin igogailuetan gure ikerketako ereduak garatzeko proiektu batzuk dauzkagu; lanean gabiltza igogailuentzat sistema berriak sortzen. Baita gabiltza INGETEAM taldearekin ikertzen energia elektrikoaren banaketa sistema berrietan; Ormazabal enpresarekin ere baditugu proiektuak; Fagor Etxetresna Elektrikoekin ere, sistemak elektratresna eta elektronikan integratzeko; baita Componentes dibisio berriarekin osagai, elektratresna berriak eta berogailu berriak (energia elektrikoa sortzen dutenak garatzen); Fagor Electronikan telebista digitalaren banaketa bermatzeko aparailuetan; eta Ulmarekin kolaborazio garrantzitsua daukagu sistema txertatuen teknologia guztia han garatzeko; baita harremana Ikerlanekin eta ETICekin ere.

**JOSU GALARZA**
MUko elektronika eta informatika departamenduetako koordinatzailea.

# AMPLIA OFERTA DE MASTERS UNIVERSITARIOS PARA 2010-2011

## MU+: OFERTA PARA PROFESIONALES

### MASTERS UNIVERSITARIOS

- **Master Executive en Innovación Empresarial y Dirección de Proyectos**

El Master se impartirá en el Parque Tecnológico de Zamudio a partir del 1 de febrero.

Dentro de los retos del siglo XXI, muchos directores consideran la innovación como un valor muy importante para sus organizaciones, pero ¿Se poseen todas las habilidades requeridas? El Master "Innovación Empresarial y Dirección de Proyectos" en su versión Executive está diseñado para proporcionar a los profesionales esos conocimientos con el fin de situar a sus organizaciones en una posición competitiva ahora o en el futuro. Este Master se imparte en dos vertientes: una dentro del sistema académico de Eskola orientado a los alumnos de posgrado, y otra orientada para complementar la formación de profesionales activos de distintas empresas.

*www.mondragon.edu/muplus/*

- **Master Oficial en Gestión de Empresas Cooperativas On Line**

A partir de febrero de 2011.

El objetivo global del título es proporcionar, a profesionales en activo, las competencias necesarias para crear, desarrollar, gestionar y liderar empresas cooperativas y de economía social y solidaria.

*www.mondragon.edu/mcoop*

- **Ekomu**

Master honek eleaniztasuna eta kulturartekotasuna landuko ditu, bi ibilbiderekin: batetik, masterra bera egin ahal izango da, eta, bestetik, balio izango du ikerketa -ibilbidea egiteko, orain arte doktorego ikasketak zirenak. Masterra erabat on line izango da. Master hau prestatu da bereziki espezialista izan nahi dutenentzat eleaniztasunean eta kulturartekotasunean, irakatsi nahi dutenentzat hezkuntza arautuan eta ez arautuan, prestatzaileak prestatu nahi dituztenentzat, gai didaktikoak diseinatzen dituztenentzat eta gai hauetan sakondu nahi dutenenetzat (gurasoak, elkarteak...).

- **Berrikuntza Didaktiko metodologikoko Proiektuen garapena Hezkuntza Erakundeetan**

Master honetan estrategiak landuko dira, berrikuntza didaktiko metodologikoari lotutako proiektuak sortzeko eta kudeatzeko, eta interbentzio baliabideak landuko dira. Masterra hezkuntzan diharduten profesionalei zuzenduta dago. Master honek ikaslea izango du ikaskuntzaren ardatz. Ikasleak zuzendutako proiektuak bere prestakuntza-ibilbidea markatuko du. Metodologiak, bestalde, honako alderdiak biltzen ditu: kasuen azterketa, egoerei buruzko azterketa eta hausnarketa, informazioaren bilaketa nahiz eztabaida eta proiektuetan oinarritutako bestelako metodologiak. Hori guztia modalitate erdi -presentzialarekin (%30 aurrez aurrekoa eta %70 on-line).

### TITULOS PROPIOS

- **MBA executive**

Impartido en colaboración con la Cámara de Gipuzkoa, está dirigido al desarrollo personal y profesional de directivos de empresa. Sus objetivos fundamentales son proporcionar un enfoque integral y sistémico de las empresas y la gestión empresarial en todas sus áreas relevantes, impulsar la innovación y desarrollar la capacidad de liderazgo integrando las competencias y habilidades directivas necesarias para ello.

*www.mondragon.edu/executive*

- **Master internacional en Intraemprendizaje e Innovación colaborativa**

A partir de febrero de 2011.

El objetivo es capacitar a los profesionales con un perfil competencial innovador-emprendedor con el fin de que traccionen procesos de intraemprendizaje e innovación. El programa se fundamenta en la formación-acción de acuerdo con el modelo educativo finlandés de Team Academy de la Jyvaskyla University of Appliance Science (Finlandia).

*www.mondragon.edu/muplus*

- **Master en Dirección de Producción**

El Master se impartirá en Mondragón a partir del próximo enero.

El XX Máster en Dirección de Producción es un programa de postgrado organizado por la Escuela Politécnica Superior de MU y orientado a profesionales en activo. A lo largo de las ediciones anteriores han realizado dicho programa alrededor de 400 personas pertenecientes a grandes y pequeñas empresas de diversos sectores Industriales, orientándose mayoritariamente a los siguientes perfiles de asistentes: Profesionales que desde
- una experiencia técnica van a evolucionar a posiciones de jefatura o dirección industrial. Y directivos que requieran mejorar sus parámetros de eficacia en la Gestión Industrial.

*www.mondragon.edu/mdp*

- **Máster Executive en Dirección de Operaciones**

El Master se impartirá en la cámara de comercio de Bilbao a partir del 5 de noviembre

El programa pretender formar y capacitar a profesionales en el ámbito de la dirección operativa para: Aportar a los asistentes una visión integral de la

**ESKAINTZA BERRIA**
Graduondoko eskaintza oparoa prestatu du 2010-2011 ikasturterako Mondragon Unibertsitateak.

gestión industrial en los nuevos entornos competitivos. Desarrollar las capacidades necesarias para diseñar un modelo de gestión industrial adecuado a las necesidades estratégicas de la empresa, así como implantar las soluciones adecuadas. Aportar a los profesionales en activo la capacidad de identificar las claves de competitividad necesarias "World Class Manufacturing" en el camino hacia la empresa excelente. Desarrollar un foro en el que los asistentes compartan y aprendan de las experiencias y/o conocimientos adquiridos durante el desarrollo de los diferentes proyectos personales.
*www.mondragon.edu/mdo*



## OFERTA PARA RECIEN GRADUADOS

- **Master Universitario en Innovación Empresarial y Dirección de Proyectos.**

El Master se impartirá en Mondragón y tendrá un año de duración

El objetivo principal de este Master es proporcionar a los universitarios de las áreas de Ciencias e Ingeniería especialmente, las competencias necesarias para realizar con éxito la transición a puestos de trabajo con responsabilidades de dirección y gestión en organizaciones y empresas innovadoras o con la necesidad de promover la innovación.

Tendrán acceso directo: Los titulados Universitarios con enseñanzas oficiales adscritas a las ramas de conocimiento de Ingeniería y Arquitectura.

Acceso con Complementos de Formación: Los titulados Universitarios con enseñanzas oficiales adscritas a las ramas de conocimiento de Ciencias Sociales y Jurídicas, Ciencias y Ciencias de la Salud, Arte y Humanidades.

- **Master Universitario en Diseño Estratégico de Productos y Servicios Asociados.**

El Master se impartirá en Mondragón y tendrá dos años de duración.

El objetivo principal del título es formar profesionales capaces de promover y generar la innovación de productos, servicios y procesos tecnológicos a través del diseño estratégico basado en la sostenibilidad y en el diseño centrado en las personas.

Tendrán acceso directo a los estudios, los alumnos titulados en Ingeniería Técnica en Diseño Industrial y los Graduados en Ingeniería en Diseño Industrial y Desarrollo de Producto. Y tendrán que cursar complementos de Formación, los alumnos titulados en: Ingeniería Técnica Industrial en Mecánica, Graduados en Ingeniería Mecánica, Graduados en Ingeniería en Organización Industrial, Ingenieros Industriales, Ingenieros en Materiales, Arquitectos y Arquitectos Técnicos.

- **MBA-Máster universitario en dirección de empresas:**

El objetivo global del título es proporcionar, a jóvenes graduados, las competencias necesarias para gestionar y liderar empresas y organizaciones en entornos inciertos y contextos globales, a través de una visión multidisciplinar de la gestión empresarial, integrando conocimientos y competencias y habilidades específicas para desenvolverse en las empresas de hoy y en las de la "nueva econñmia".
*www.mondragon.edu/mba*

**PROFESIONAL ASKORENTZAT AUKERA** eskaintzen du MU+egitasmoak. Askok lana eta ikasketak uztartuko dituzte.

- **Máster en gestión de empresas cooperativas (presencial):**

): A partir de febrero de 2011. El objetivo global del título es proporcionar, a jóvenes graduados, las competencias necesarias para crear, desarrollar, gestionar y liderar empresas cooperativas y de economía social y solidaria.
*www.mondragon.edu/mcoop*

- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxillergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan Gaitzeko unibertsitateko master ofiziala**

Titulu honen helburu orokorra da eskuratzea pedagogiaren eta didaktikaren alorretako jakintzak eta konpetentziak, bai orokorrak eta bai dagokion espezialitateko jakintza-arloari dagozkionak ere. Titulua eratu da aipatutako irakaskuntza-etapetako irakasleei prestakuntza espezializatua eskaintzeko.
Masterrean sartzeko, ikasleak baldintza akademiko hauek bete behar ditu: 1. Espainiako unibertsitate-titulu ofizial baten jabe izatea; edo, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Espazioko goi mailako hezkuntzako erakunde batek emandako tituluaren jabe izatea. 2. Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Espazioz kanpoko hezkuntza-sistemetako titulu baten jabe izatea.

## GEP

# DESARROLLO Y CARACTERIZACIÓN DE MATERIALES

La eficacia del empleo de aleaciones con memoria de forma para la mejora del comportamiento de materiales compuestos ante cargas de impacto ha sido abordada en dos frentes: la profundización en el conocimiento del comportamiento termomecánico de aleaciones de NiTi en el rango de impacto, y el empleo de este conocimiento para la fabricación de un nuevo material pCBT/FC/NiTi, capaz de aumentar la capacidad de absorber energía ante impacto y mejorar la tolerancia al daño.



JAVIER ZURBITU
ha realizado su trabajo sobre el desarrollo y caracterización de compuestos reforzados con aleaciones con memoria de forma para la mejora del comportamiento ante impacto.

## GEP

# ENFOQUE INTEGRADO

En esta tesis se propone una arquitectura integrada que trata de acercarnos a la visión de los entornos inteligentes descrita por Weiser, mediante cuatro contribuciones principales: 1) Un modelo basado en precondiciones y efectos para facilitar la integración de la información contextual del entorno con las funcionalidades ofrecidas por los servicios; 2) Un razonador semántico eficiente y ligero; 3) Un mecanismo de emparejamiento sensible al contexto; 4) un mecanismo de composición flexible, basado en conversaciones.



AITOR URBIETA
El autor investiga sobre el enfoque integrado para el modelado, emparejamiento y composición sensible al contexto de servicios semánticos, basado en precondiciones y efectos, orientado a entornos inteligentes.

## HUHEZI

# JARRERA KOMUNIKATIBOAK

Tesi honen helburua izan da aztertzea 2007-08 ikasturtean MUn Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten zihardutenikasleek nola identifikatzen zituzten beren informazio-beharrak eta ikertzea informazioa bilatzeko, ebaluatzeko eta erabiltzeko zituzten kontzepzioak, usteak eta estrategiak. Ikerketa aparatuan metodologia kuantitatibo eta kualitatiboak uztartu dira: iritzi-eta ataza-itemez osatutako galdetegiak batetik, eta eztabaida-taldeak bestetik. Ikerketa hau lagungarria izango da informazio-konpetentzien garapen curricularra diseinatzerakoan, erabaki egoki eta eraginkorrak planifikatzeko eta prozesuan egon daitezkeen oztopoak identifikatzeko.



TXEMA EGAÑA
Egileak MUko ikus-entzunezko komunikazioa ikasketetan zihardutén ikasleen jarrera komunikatiboak aztertu ditu. Informazio iturriak bilatuz eta joerak ebaluatuz.

## HUHEZI

# EUSKARA PLANETAKO LANGILE EUSKALDUNEN JARRERA AZTERGAI

Edozein jarrera objekturen aurrean, jarreraren eta portaeraren arteko disonantzia orekatze aldera, zenbait ekintza eraman behar izaten dira aurrera. Eta aurrera egin ahal izateko, motibazioa bezalako egitura batek bultzatu behar gaitu: motibaziorik ez badugu, ez ditugu jarrerak aldatuko edo mugituko, eta portaera ez da gauzatuko. Tesi honetan pentsamenduaren edo kognizioaren garapenaren garrantzia aztertu da, eremu sozio-ekonomikoan, euskara planen baitan parte hartzen duten langile euskaldunen euskararen erabilera areagotzeko edo euskara erabiltzeko jarrera onetik portaerara jauzi egiteko, gizarte psikologiako ikuspegi kognitibistari jarraiki. Horretarako, zenbait proba egin dira eta ondorioztatu da jarreratik portaerara jauzi egiteko ez dela nahikoa euskararen aldeko intentzio ona izatea, ezta konpromiso sendoa azaltzea ere; euskararen erabilera areagotzeko euskarari buruz gehiago jakiten saiatuz, euskararen gainean gogoeta eginez, helburuak lortu edo lortu ez izanaren arrazoiak edo kausak aztertuz, euskararen aldeko portaera alda daiteke



JOXPI IRASTORZAK
aztertzen du lan munduko euskara planetako langile euskaldunen jarrera, portaera eta motibazioak: pentsamendu garatzetik helburuak lortzera.

# IMPLANTANDO ACTIVIDADES DE EMPRENDIZAJE DESDE 2005




ARGAZKIA: MU

**2010.URTEKO EDIZIOAREN KARTELA**
Aurten sekulako arrakasta izan du EKITEN programak. Guztira 35 proiektu aurkeztu dira; 21 enpresa arlokoak, 6 landa garapenaren gainekoak eta beste 8 kirol, gazteria eta aisialdiaren arlokoak.

EL PROGRAMA EKITEN SURGIÓ EN 2005 CON EL OBJETIVO DE DISEÑAR UN MÉTODO DE IMPLANTACIÓN DE ACTIVIDADES DE EMPRENDIZAJE EN EL AULA, LLEVAR A CABO UNA IMPLANTACIÓN REAL DE ESTE MÉTODO EN LAS TRES FACULTADES, CON EL FIN DE CREAR UNA BUENA PRÁCTICA EN LA IMPLANTACIÓN DE PREINCUBADORA Y FOMERTAR EL EMPRENDIZAJE

La iniciativa preincubadora pretendía desarrollar iniciativas de emprendizaje precompetitivas, formando al mismo tiempo, a través de la capacitación en oportunidades reales de negocio, a emprendedores capaces de llevarlas adelante, en un entorno de fomento de la cultura innovadora entre los alumnos de Mondragon Unibertsitata. Eduardo Pascual (GEP), uno de los coordinadores de la iniciativa, junto a Onintza Belategi (HUHEZI), Sain López (Enpresagintza), Ángel Mari Etxabe (Saiolan) y el vicerrector de MU Joxemari Aizega, asegura que, "se trataba de crear un entorno que gestionara y desarrollara ideas de negocio, entendido como la captación e identificación, formulación, validación y materialización de ideas de producto y servicio". En definitiva, procesos que fomentan aún más el acercamiento universidad-empresa.

> En 2010 se han presentado 35 proyectos: 21 dedicados a la empresa, 6 al desarrollo del medio rural y 8 al deporte, al ocio y a la juventud

## DIFUNDIR LA CULTURA EMPRENDEDORA

Para EKITEN es muy importante difundir la cultura emprendedora a través del desarrollo de proyectos de emprendizaje "reales" dentro del aula. Asimismo, el objetivo del programa es acompañar a los alumnos en su primera experiencia real de emprendizaje y creación de planes de negocios, así como en la formulación de proyectos precompetitivos emprendizables.

En los últimos años, las actividades en la que se ha centrado EKITEN, han sido la de diseñar métodos para implantar el emprendizaje en el aula (titulación de liderazgo emprendedor, aprendizaje basado en proyectos en temática de emprendizaje en varias titulaciones ...) así como la organización de charlas, concursos y entrega de becas para el desarrollo de proyectos.

Inmersos en esa actividad, durante los últimos cuatro años se han realizado diversas actividades, entre las que destacan los encuentros donde alumnos de todas las facultades tienen oportunidad de conocerse, intercambiar ideas e incluso formar equipos para el desarrollo de ideas que a posteriori presentarán en el concurso Ekiten. "Es el concurso la actividad principal de los últimos años, donde se identifican las mejores ideas, que a su vez serán becadas para seguir su fase de incubación en Saiolan", asegura Eduardo Pascual.

Hay alumnos que participan de manera individual, o en equipos, presentando ideas propias, o como resultado de los proyectos que realizan en clase. Algunos de estos proyectos se hacen en contacto con empresas tratando de satisfacer sus necesidades de innovación y emprendizaje.

KIROLA

# KIROLA BAI, BAINA KONTROLPEAN

IA EGUNERO ENTZUTEN DUGU KIROLA ETA JARDUERA FISIKOA ONURAGARRIAK DIRELA, OSASUNA ZAINDU EDO HOBETZEKO. UNE HONETAN, GAINERA, JENDE ASKO BEHOBIA -DONOSTIA PRESTATZEN DABIL. BADA, EGITEN DEN KIROLA NEURTZEA KOMENI DELA DIOTE ADITUEK.

Eskola garaian derrigorrezko ikasgaia da gorputz hezkuntza, eta astean 90 minutu inguru izaten ditugu jarduera fisikoarekin gozatzeko. Gainera, eskolaz kanpoko kirol eskaintza zabala daukagu, eta ordutegia lagun izanik, hauetan parte hartzeko aukera izaten da arratsaldero, hain ezaguna, den “multi kirola” edota talde “federatuetan”. Hortaz, eskola garaian hain onuragarria den jarduera fisiko hau burutzeko aukera paregabea daukagu modu horretan.

Unibertsitatera iristean, aldiz, egoera erabat aldatzen da: ikasketa maila handiagoa izanda eta eskolaz kanpoko beste konpromisoen eraginez, aurretik burututako kirol federatua alde batera uzteko joera izan ohi da nagusi eta ondorioz, norbere kabuz hain preziatua den “jarduera fisikoa” praktikatzen hasten gara, ordutegiarekin inongo loturarik izan gabe.

Horren harira, gaur egun korrika egitea “modan” dagoela esango genuke, geroz eta jende gehiago ikusten dugu-eta kale zein errepide ertzetan lasterka hara eta hona, eta zer esanik ez garai hauetan. Azaroaren 14an, Behobia-SDonostia lasterketa ospetsua egingo dute Donostialdean eta aurtengoa 46.edizioa izanik, 20.000 korrikalari bilduko dira parte hartzeko. Azken lau urteotan 8.000 korrikalari gehiago biltzen dira bertan; esan beharrik ez dago lasterketa honek duen arrakasta ikaragarria dela.

Hau guztia ikusita, badirudi jendeak bere osasuna zaintzeko asmoa duela, eta gure herria osasuntsua dela, baina hala al da benetan? Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzutik honako zalantzak jarri nahiko genituzke mahai gainean: korrikalari guzti hauetatik zenbatek egiten diote behar den bezalako jarraipena bere kirol entrenamenduei? Horietako zenbatek egin dute inoiz kirol medikuntza azterketa bat? Ezaugarri hauetako lasterketa batek prestakuntza bat eskatzen du, Behobia-Donostian 20 kilometroko lasterketa baita.

**BEHOBIA-SAN SEBASTIAN**
Multitud de estudiantes están preparándose para la conocida prueba. Los especialistas aconsejan controlar la práctica deportiva.

## ENTRENAMENDU PERTSONALIZATUAK

Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak bere zerbitzuen artean entrenamendu pertsonalizatuak prestatzen ditu interesaturik dauden ikasle zein langileentzat, eta gainera kirol mediku azterketa bat egiteko diru-laguntzak eskaintzen dizkie ikasleei Arrasateko Athlon Kirol Medikuntza zerbitzuan.

Hortaz, MUko ikasle edo langilea bazara eta zeure kabuz jarduera fisikoa egiten baduzu, gogoan izan, jarduera osasuntsua izateko neurtua eta kontrolatua ere izan behar duela; uste baino garrantzitsuagoa dela alor hori zaintzea.




ARGAZKIA: J. ARANZABAL

# 30 IKASLE BAINO GEHIAGO ETORRI DIRA ERASMUS PROGRAMAREKIN



ARGAZKIA: MU

**ERASMUS EN EPS**
Alumnos de Erasmus que se reunieron en la Escuela Politécnica Superior en septiembre. MU puso en marcha el protocolo de bienvenida para los alumnos Eramus.

MU-K LEIHO UGARI DITU IREKIAK MUNDURA BEGIRA. NAZIOARTEKO UNIBERTSITATE UGARIREKIN HITZARTU DITU HITZARMENAK ELKARLANERAKO ETA IKASLEEN FLUXUA ERRAZTEKO. ERASMUS DA EGITASMO HORIETAKO BAT. AURTEN, 30 IKASLE BAINO GEHIAGO ETORRI DIRA GURERA

Besteak beste, Kolonbiako Panamericana unibertsitatearekin, Txileko Los Pelambres fundazioarekin eta Hego zein Ipar Amerikako zenbait unibertsitate eta erakunderekin harremana du MUk. Era berean, mundu osoan ezagunak diren beste zenbait egitasmotan parte hartzen du, eta horietako bat da Erasmus. Programa honek aukera ematen die mundu osoko ikasleei atzerriko unibertsitateetan ikasketak egiteko, eta honi eskerrak, gure unibertsitateko ikasleek aukera dute kanpoan esperientzia aberasgarria bizitzeko. Era berean, nazioarteko unibertsitateetatik ere gero-eta ikasle gehiago gerturatzen dira gurera. Datuak honako hauek dira.

## GEP-EN 10 ERASMUS IKASLE

Goi Eskola Politeknikora hamar ikasle iritsi dira aurten Mexiko, Txekiar Errepublika, Frantzia, Turkia, Erresuma Batua eta Poloniatik. Horietatik hiru ikasle urte osoan egongo dira gure artean, eta gainerako zazpiek sei hilabete egingo dituzte. Besteak beste, Informatika, Automatika, Antolakuntza, Mekanika, Diseinua eta Industria ikasketak egingo dituzte. Bost ikaslek soilik ikasgaiak egingo dituzte eta beste horrenbestek proiektuak.

## HAMABI HUHEZI-RA

Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera, berriz, hamabi ikasle iritsi dira, Fakultate honetan burutu den Erasmus programaren laugarren aldian. Horietatik, zortzi ikaslek egingo dituzte irakasle ikasketak, eta lauk ikus-entzunezko komunikazioa. Irailaren 6an egin zitzaien harrera HUHEZI fakultatean, eta ikastaldiaren nondik norakoak azaldu zitzaizkien. Ikasle hauek Gabonak arte izango dira Eskoriatzan, eta bitartean bertako ikasleekin batera ikasiko dute. Batzuetan programa berezia izango dute. Euskal kulturaren gainean ere irakasgai berezia jasoko dute, gure herriaren berezitasunen gaineko hamaika zehaztasun. Ikasleak Finlandia, Herbeherak, Belgika eta Estoniatik etorri dira.

## OÑATIN ETA IRUNEN

Enpresagintza fakultatean ere Nazioarteko Mugikortasunak garrantzi handia dauka. Kolonbiako Panamericana unibertsitatearekin eta Minuto de Dios korporazioarekin harreman estua du eta aurten bi erakundeetatik ia 20 ikasle etorri dira gurera. Era berean, Finlandiarekin ere harreman estua du Enpresagintzak, LEINN ikasketak eskaintzen dituelarik. Erasmus programaren bitartez ere zenbait ikasle gerturatu dira aurten Oñatiko zein Irungo fakultateetara. Guztira, 5 ikasle gerturatu dira Enpresagintza Fakultatera, Finlandia, Italia, Mexiko eta Brasildik. Ikasketei dagokienez, enpresagintza zuzendaritzaren gaineko graduak eta lizentziaturak egingo dituzte ikasleek.

AGENDA

## URRIA

■ **CICLO DE CONFERENCIAS PARA LAS EMPRESAS DEL BIDASOA**

El 28 de octubre se ofrecerá una conferencia para las empresas del Bidasoa, en el Campus que MU tiene en Irún, de 18:00 a 20:00 de la tarde.
Bajo el título 'cálculos financieros para la valoración de los distintos elementos patrimoniales',

■ **CONFERENCIA DE LEOPOLDO ABADÍA**

29 de octubre a las 12 del mediodía en Santa Ana aretoa de Oñati.
El acto está enmarcado dentro del 50 aniversario de ETEO.
Leopoldo Abadía ha presentado recientemente un nuevo libro titulado, 'Qué hace una persona como tu en una crisis como esta?'

■ **CURSO EXPERTO EN LOGÍSTICA INTEGRAL**

15 octubre 2010
Se imparte en la Camara Comercio Alava - Gasteiz
*www.mondragon.edu/muplus*

■ **CURSO AVANZADO EN GESTIÓN INDUSTRIAL**

25 octubre 2010
Se imparte en la Camara Comercio Gipuzkoa - Donostia
*www.mondragon.edu/muplus/*

## AZAROA

■ **LIBURU AURKEZPENA**

Azaroaren 11an aurkeztuko da Donostiako Koldo Mitxelena kultur gunean ETEOren 50. urteurrenaren gaineko liburua aurkeztuko da.

■ **LITERATURA ASTEA HUHEZI**

Azaroak 11an, egun osoz.
"AEBetako Mendebalean sortutako literatura". Diasporako literatura izango du hizpide, zehatzago esateko, AEBetako Mendebaldean sortutako literatura.

■ **ORIENTATZAILEENTZAT JARDUNALDIA**

"Unibertsitaterako prest?"
Azaroaren 12an
09:30etatik - 13:00ak arte
Batxilergoko orientatzaile, kudeatzaile eta ikasketa buruei zuzedua.
Donostiako Miramar Jauregian.
Izena emateko:
*sazpilikueta@mondragon.edu*

■ **ETEOREN 50.URTEURRENEKO EKITALDIA**

Azaroaren 18an ekitaldi berezia egingo da Donostiako Kursaal Jauregian ETEOren 50.urteurrena ospatzeko.

■ **ZIENTZIAREN ASTEA**

Azaroaren 15etik 21arte izango da Goi Eskola Politeknikoan.

■ **CICLO DE CONFERENCIAS PARA LAS EMPRESAS DEL BIDASOA**

25 de noviembre de 18:00 a 20:00
'La política fiscal ante la crisis económica', se ofrecerá una conferencia para las empresas del Bidasoa, en el Campus que MU tiene en Irún.

■ **CURSO AVANZADO EN MONTAJE Y MTO. DE MÁQUINAS**

2 de noviembre 2010 Arrasate.
Para responsables y técnicos del área de mantenimiento, montadores de máquinas, integrantes de la oficina técnica, servicio de asistencia técnica.
*www.mondragon.edu/muplus*

## ABENDUA

■ **ATE IREKIEN JARDUNALDIA**

**Goi Eskola Politeknikoa**
• Abenduak 18, larunbata, 10:30etan
• Otsailak 5, larunbata, 10:30etan
**Goierri:**
• Urtarrilak 27, osteguna, 17:30etan
**Enpresagintza fakultatea**
• Abenduak 11, larunbata, 11:00etan
• Otsailak 24, osteguna, 18:00etan
**Bidasoa:**
• Abenduak 18, larunbata, 11:00etan

■ **CICLO DE CONFERENCIAS PARA LAS EMPRESAS DEL BIDASOA**

Bajo el título 'cómo reducir los costes gracias a la logística', el 16 de diciembre se ofrecerá una conferencia para las empresas del Bidasoa, en el Campus que MU tiene en Irún.
La charla será de 18:00 a 20:00 de la tarde.

## URTARRILA

■ **ATE IREKIEN JARDUNALDIA**

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatea**
• Urtarrilak 27, osteguna, 18:00etan
**Gastronomia Zientzien fakultatea:**
• Urtarrilak 29, larunbata, 10:30etan. Donostian, Miramongo Parke Teknologikoko Eraikin Nagusian.
• Otsailak 19, larunbata, 10:30etan. Bilbao, Euskalduna Jauregia

■ **MASTERRA HUHEZIN**

Berrikuntza Didaktiko metodologikoko Proiektuen garapena Hezkuntza Erakundeetan. Urtarrilaren 17an hasiko da, uztaila bitartean.

■ **CURSO EXPERTO EN DESARROLLO PERSONAL Y LIDERAZGO DE EQUIPOS.**

A partir de enero de 2011.
*www.mondragon.edu/lider*

## OTSAILA

■ **ATE IREKIEN JARDUNALDIA**

**Arrasateko Kanpusean**
Otsailaren 5ean izango da, 11:00etan
**Goierriko Kanpusean**
Otsailak 24ean izango da, 17:30etan

■ **CURSO AVANZADO EN FINANZAS**

A partir de febrero de 2011.
*www.mondragon.edu/caf*

■ **CURSO AVANZADO EN GESTIÓN EMPRESARIAL**

A partir de febrero de 2011
*www.mondragon.edu/calg*


RENAULT
ARRASATE.
SAN ANDRES AUZOA 8-9.TEL. 943 71 24 72
AZPEITIA.
LOIOLAKO ETORBIDEA 26.TEL. 943 81 08 08
ELGOIBAR.
POLIGONO OLASO 17.TEL. 943 74 27 55
IRUN.
AVDA. LETXUNBORRO 89.TEL. 943 63 91 22
TOLOSA.
P. INDUSTRIAL S/N.(ANOETA) TEL. 943 65 28 43
www.renault.es/concesion/autoberri
SÓLO ALGUNOS COCHES DE OCASIÓN LO TIENEN TODO
RENAULT CLIO
5P dCi 85CV EXPRESSION Eco²
Año 2009. Garantía hasta 24 meses
Climatizador, Pintura metalizada, Rueda de repuesto.
11.500€*
RENAULT MÉGANE
dCi 105CV EXPRESSION Eco²
Año 2009. Garantía hasta 24 meses
Climatizador, Encendido automático de luces, Sensor de lluvia, Faros adicionales antiniebla, RadioSat Classic Bluetooth CD mp3, Rueda de repuesto, Pintura metalizada.
14.700€*
Consulta nuestros compromisos y garantías en www.renault.es
RENAULT OCASIÓN
PORQUE TÚ LO QUIERES TODO
*P.V.P. con IVA y gastos de transferencia incluidos. Oferta válida hasta 31/10/10 o fin de existencias.
Las versiones visualizadas pueden no corresponderse con las versiones ofertadas.
RENAULT elf
RENAULT


ARRASATEKO HIPERMERKATUAN
Irailaren 20tik aurrera
Ordutegi berria
9:30etik 21:30era
EROSKI
zurekin
Musakola auzoa 11
Arrasate
943 71 10 30
www.grupoeroski.es

# KONTZERTUAK

**SARRERAK ETA ABONUAK** //
SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> **943 25 05 05** ZENBAKIAN
3> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

SARRERREN SALNEURRIA **5 EURO** // GAZTEKUTXAREKIN **3 EURO**
ABONUA **22 EURO** // GAZTEKUTXAREKIN **12 EURO**

ELGETAKO KAFE ANTZOKIA / 22:30

## 2010

urriak **22**
- **BLACK RIVER** OÑATI
- **DESPREZIO** ARRASATE-BERGARA
- **LORD WITCH** BERGARA
- **LA-TOX** BERGARA

azaroak **5**
- **EL TRIO CALAVERA** OÑATI
- **ROCK PRIVADO** OÑATI-DONOSTIA
- **FRONT MALABAR** ARRASATE
- **YMOTEK** ABADIÑO

azaroak **19**
- **DOCTORS KLUB** ABADIÑO-DURANGO
- **ROMBOS NEGROS** BERGARA
- **KARPOVIAN PROJECT** MURIKU
- **EZ!** OÑATI

azaroak **26**
- **XARMA** ONDARRU
- **DEABRUTU** ARAMAIO
- **SEAFÓID** EIBAR
- **SCAM** ARETXABALETA

abenduak **17**
- **DARK CODE** BERGARA
- **KUBERS** SORALUZE
- **ASFIKSIA** OÑATI
- **INDUSTRIA DOLOR** ARRASATE

## 2011

urtarrilak **14**
FINALA




**www.danbaka.com**

BABESLE NAGUSIA

LAGUNTZAILEA

ANTOLATZAILEAK